Tolosako Udala

OBRA KONTRATUA / CONTRATO DE OBRAS
prozedura ireki sinplifikatua / procedimiento abierto simplificado

☒ Arrunta / *Ordinaria*	☐ Presakoa / *Urgente*	☐ Aurreratua / *Anticipada*
	Espedientea / Expediente	**2026OASI0006**

A) BOTERE ADJUDIKATZAILEA / PODER ADJUDICADOR	
Administrazio kontratatzailea / Administración contratante	Tolosako Udala / Ayuntamiento de Tolosa
Kontratazio-organoa / Órgano de contratación	Alkate-lehendakaria / Alcalde presidente
Saila / Área	Hirigintza / Urbanismo
Espedientea hasteko data / Fecha de inicio del expediente	2026ko irailak 25 / 25 de septiembre de 2026

B) KONTRATUAREN XEDEA / OBJETO DEL CONTRATO			
San Inazio auzoko Otarreaga kaleko bidegurutzea urbanizatzeko obrak	**Obras de urbanización del cruce de la calle Otarreaga en el barrio de San Ignacio**		
CPV	45220000-5 Obras de ingeniería y trabajos de construcción 45233222-1 Trabajos de pavimentación y asfaltado 45233223-8 Trabajos de repavimentación de calzadas 45233251-3 Trabajos de repavimentación		
Loteetan lizitatzeko aukera	Posibilidad de licitar por lotes	☐ Bai / Sí	☒ No / Ez
Mugak loteetan: Ikus I eranskina	Limitaciones en lotes: Ver anexo I	☐ Bai / Sí	☒ No / Ez

C) KONTRATU ERRESERBATUA / CONTRATO RESERVADO		
☐ Bai / *Sí* ☒ Ez / *No*	☐	Enplegu-zentro Berezia / Centro Especial de Empleo
	☐	Gizarteratze enpresak / Empresas de Inserción Social

D) LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA / PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN	
Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio hau Tolosako Udalaren eta Ibarrako Udalaren kontura egingo da, eta Tolosako Udala arduratuko da prozedura administratzeaz, bere kontura eta Ibarrako Udalaren kontura. Horretarako, dagokion hitzarmena sinatu da aipatutako udalarekin. Tolosako Udalak kontratua esleituko du eta erabaki hori loteslea izango da bi udalentzat. Erakunde bakoitzak bere kontratua formalizatuko du, dagokion obra-zatiarekin eta haren kargura izango dira dagozkion fakturak.	De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, la presente contratación se desarrolla por cuenta del Ayuntamiento de Tolosa y del Ayuntamiento de Ibarra, siendo el Ayuntamiento de Tolosa la entidad encargada de administrar el procedimiento, por cuenta propia y por cuenta del Ayuntamiento de Ibarra. A estos efectos se ha suscrito el correspondiente convenio con el citado ayuntamiento. El Ayuntamiento de Tolosa adjudicará el contrato y dicho acuerdo será obligatorio para ambos ayuntamientos. Cada entidad formalizará el contrato que en función de la parte de obra le corresponda y serán a su cargo las correspondientes facturas.

Lizitazioaren prezioa (BEZ gabe) Importe de licitación (IVA excluido)	BEZ mota Tipo IVA	Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ barne) Presupuesto base de licitación (IVA incluido)
161.850,26	21%	195.838,81

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

Balio zenbatetsia / Valor estimado	161.850,26
Aurrekontu-partida / Partida presupuestaria	Tolosako Udala: 0700. 601.10. 153.20: 120.208,18€ Ibarrako Udala: 75.630,63€

E) BALIO ZENBATETSIA / VALOR ESTIMADO

valor estimado	IVA (21%)	ppto base licitación
161.850,26	33.988,55	195.838,81

entidad	importe sin IVA	IVA	Importe con IVA	% sobre el total
Tolosako Udala	99.345,60	20.862,58	120.208,18	61,38
Ibarrako Udala	62.504,66	13.125,97	75.630,63	38,62
TOTAL	161.850,26	33.988,55	195.838,81	100

F) FINANTZIAZIO ERREGIMENA / RÉGIMEN DE FINANCIACIÓN

Tolosako Udala / Ayuntamiento de Tolosa	61,38 %
Ibarrako Udala / Ayuntamiento de Ibarra	38,62 %

G) IRAUPENA ETA URTEKO KUOTAK / DURACIÓN Y ANUALIDADES

Kontratuak bi (2) hilabete iraungo du, zuinketaren egiaztapen-akta formalizatzen denetik hasita.	La duración del contrato será de dos (2) meses desde la formalización del acta de comprobación del replanteo.

Luzapena *Prórroga*	☐ Bai / *Sí*	Aurreabisu-epea *Plazo de preaviso*	☐ Orokorra / *General*
	☒ Ez / *No*		☐ Espezifikoa / *Específico*

H) BERMEALDIA / PLAZO DE GARANTÍA

Urtebete eta SPKLaren 111.5 artikuluan xedatutakoa betez gero, sei hilabete.	Un año y si se cumple lo dispuesto en el artículo 111.5 de la LCSP, seis meses.

I) EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK / CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN

11. klausula eta I. eranskineko 24. klausula.	Cláusula 11 y apartado 24 del anexo I

J) PREZIOEN BERRIKUSPENA / REVISIÓN DE PRECIOS

☐ Bai / *Sí* Formula / *Fórmula:*	☒ Ez / *No*

K) BEHIN-BEHINEKO BERMEA / GARANTÍA PROVISIONAL

Ez dagokio	No procede

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

L) BEHIN BETIKO BERMEA / GARANTÍA DEFINITIVA	
☒	Adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe) / *5 % del importe de adjudicación (IVA excluido)*
☐	Adjudikazioa unitate-prezioka bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %5 / *5% del presupuesto base de licitación, caso de adjudicación por precio unitario*
☐	Prezio-atxikipen bitartez bermea eratu izana onartuta / *Admitida constitución mediante retención de precio*
☐	Berme osagarria eskatua / *Exigida garantía complementaria*

M) SUBROGAZIOA LAN KONTRATUETAN / SUBROGACIÓN EN CONTRATOS DE TRABAJO	
Ez dagokio	No procede

N) BEHARREZKO BALIABIDEEN ATXIKIPENA / ADSCRIPCIÓN OBLIGATORIA DE MEDIOS	
☐ Bai, Ikus I. eranskina / *Sí, ver anexo I*	☒ Ez / *No*

Ñ) AZPIKONTRATAZIOA / SUBCONTRATACIÓN		
☐	Azpikontratazioa onartzen ez duten zeregin kritikoak	Tareas críticas que no admiten subcontratación
☒	Eskaintzan zehaztu behar da subkontratatzeko aurreikusita dagoen kontratu-zatia	Obligación de indicar en la oferta la parte del contrato que tenga previsto subcontratar

O) AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK / MODIFICACIONES CONTRACTUALES PREVISTAS	
☐ Bai, Ikus I. eranskina / *Sí, ver anexo I*	☒ Ez / *No*

P) FAKTURAZIO DATUAK / DATOS DE FACTURACIÓN		
Tolosako Udala / *Ayuntamiento de Tolosa*	DIR 3	L01200718
Kontabilitate Bulegoa / *Oficina contable*	Kontuhartzailetza eta Diruzaintza / *Intervención y Tesorería*	

Q) PLEGUEN AURKAKO HELEGITEAK / RECURSOS CONTRA LOS PLIEGOS		
☐	Kontratua kontratuen arloko errekurtso bereziaren pean dago, Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan.	Contrato sometido a recurso especial en materia de contratación ante el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales del País Vasco.
☒	Kontratua alkate-lehendakariaren aurrean aurkeztu beharreko aukerako berraztertze errekurtsoaren pean dago.	Contrato sometido a recurso potestativo de reposición a interponer ante el alcalde-presidente.

R) KONTRATUAREN LAGAPENA / CESIÓN DE CONTRATO	
☐ Bai, Ikus I. eranskina / *Sí, ver anexo I*	☒ Ez / *No*

S) DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ENKARGUA / ENCARGO DE TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES	
Ez dagokio	No procede

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

Administrazio baldintza partikularren plegua, San Inazio auzoko Otarreaga kaleko bidegurutzea urbanizatzeko obra-kontratua arautuko duena, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatu beharrekoa.

Pliego de cláusulas administrativas particulares que ha de regir en el contrato de las obras de urbanización del cruce de la calle Otarreaga en el barrio de San Ignacio, a adjudicar por procedimiento abierto simplificado.

AURKIBIDEA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK..... 7
I. KAPITULUA. Araubide juridikoa..... 7
1. klausula. Araubide juridikoa..... 7

II. KAPITULUA Organo kontratatzailea. 8
2. klausula. Kontratazio-organoa..... 8
3. klausula. Kontratu-arduraduna. 9
4. klausula. Unitate arduraduna..... 9

III. KAPITULUA. Kontratua..... 9
5. klausula. Kontratuaren xedea eta beharra. 9
6. klausula. Balio zenbatetsia. 9
7. klausula. Oinarri-aurrekontua eta prezioa..... 9
8. klausula. Kreditua izatea..... 9
9. klausula. Kontratuen iraupena..... 9
10. klausula. Kontratuaren luzapena. 10
11. klausula. Jakinarazpen telematikoak. 10
12. klausula. Egikaritzeko baldintza bereziak..... 10
13. klausula. Prezioak berrikustea..... 12

IV. KAPITULUA. Lizitatzailea..... 12
14. klausula. Kontratatzeko egokitasuna..... 12
15. klausula. Sailkapena eta kaudimena..... 12
16. klausula. Kaudimena kanpo-baliabideekin. 13
17. klausula. Kaudimen-baldintzak..... 14

V. KAPITULUA. Adjudikaziorako prozedura..... 14
Lehenengo atala. Prozedura eta irizpideak..... 14
18. klausula. Prozedura..... 14
19. klausula. Publizitatea..... 14
20. klausula. Adjudikaziorako irizpideak. 15
Bigarren atala. Bermeak.....15
21. klausula. Behin-behineko bermea. 15
22. klausula. Behin betiko bermea. 15
23. klausula. Behin betiko bermea itzultzea. 15

II. TITULUA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA..... 16
I. KAPITULUA. Proposamenak. 16
24. klausula. Proposamenak aurkeztea. 16
25. klausula. Datu konfidentzialak. 16
26. klausula. Proposamenen forma eta edukia..... 16
27. klausula. Dokumentuak zuzentzea..... 17
28. klausula. Proposamenen edukia. 17
29. klausula. Aurkeztearen ondorioak. 18
30. klausula. Dokumentazioa kalifikatzea..... 18
31. klausula. Adierazpenaren egiazkotasuna..... 19
32. klausula. Eskaintza anormalak..... 20

ÍNDICE

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES..... 7
CAPÍTULO I. Régimen jurídico..... 7
Cláusula 1. Régimen jurídico..... 7

CAPÍTULO II. Del órgano contratante..... 8
Cláusula 2. Órgano de contratación. 8
Cláusula 3. Responsable del contrato..... 8
Cláusula 4. Unidad encargada. 8

CAPÍTULO III. Del contrato. 9
Cláusula 5. Objeto y necesidad del contrato. 9
Cláusula 6. Valor estimado..... 9
Cláusula 7. Presupuesto y precio del contrato. 9
Cláusula 8. Existencia de crédito..... 9
Cláusula 9. Plazo de duración..... 9
Cláusula 10. Prórroga del contrato..... 10
Cláusula 11. Notificaciones telemáticas..... 10
Cláusula 12. Condiciones de ejecución..... 10
Cláusula 13. Revisión de precios. 12

CAPÍTULO IV. Del licitador..... 12
Cláusula 14. Aptitud para contratar..... 12
Cláusula 15. Clasificación y solvencia..... 12
Cláusula 16. Solvencia con medios externos..... 13
Cláusula 17. Condiciones de solvencia..... 14

CAPÍTULO V. Procedimiento de adjudicación. 14
Sección primera. Del proced. y criterios..... 14
Cláusula 18. Procedimiento..... 14
Cláusula 19. Publicidad. 14
Cláusula 20. Criterios de adjudicación. 15
Sección segunda. De las garantías..... 15
Cláusula 21. Garantía provisional..... 15
Cláusula 22. Garantía definitiva..... 15
Cláusula 23. Devolución garantía definitiva..... 15

TÍTULO II. LICITACIÓN DEL CONTRATO..... 16
CAPÍTULO I. De las proposiciones. 16
Cláusula 24. Presentación de proposiciones. 16
Cláusula 25. Datos de carácter confidencial. 16
Cláusula 26. Forma de las proposiciones..... 16
Cláusula 27. Subsanación de documentos. 17
Cláusula 28. Contenido de las proposiciones..... 17
Cláusula 29. Efectos de la presentación. 18
Cláusula 30. Calificación de la documentación..... 18
Cláusula 31. Comprobación de la veracidad..... 19
Cláusula 32. Ofertas anormalmente bajas. 20

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

II. KAPITULUA Adjudikaziorako proposamena ..... 20 | *CAPÍTULO II. De la propuesta de adjudicación 20*
33. klausula. Proposamenaren ondorioak. ..... 20 | *Cláusula 33. Efectos de la propuesta. 20*
34. klausula. Kontratua adjudikatzea. ..... 20 | *Cláusula 34. Adjudicación del contrato. 20*
35. klausula. Burutzea eta formalizatzea. ..... 20 | *Cláusula 35. Perfección y formalización. 23*

III. TITULUA KONTRATUA EGIKARITZEA. ..... 23 | *TÍTULO III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO. 23*
I. KAPITULUA. Eskubide/betebeharrak. ..... 23 | *CAPÍTULO I. Derechos/obligaciones contratista.... 23*
Lehenengo atala. Kontratistari ordainketak ..... 23 | *Sección primera. De los abonos al contratista 23*
36. klausula. Kontratuaren prezioa ordaintzea. ..... 23 | *Cláusula 36. Pago del precio del contrato. 23*
Bigarren atala. Kontratistari eskakizunak ..... 24 | *Sección segunda. Exigencias al contratista. 24*
37. klausula. Betebeharrak, gastuak eta zergak. .. 24 | *Cláusula 37. Obligaciones, gastos e impuestos. 24*
Hirugarren atala. Lan-arloko xedapenak ..... 25 | *Sección tercera. Disposiciones laborales 25*
38. klausula. Lan-arloko betebeharrak. ..... 25 | *Cláusula 38. Obligaciones laborales. 25*
39. klausula. Subrogazioei buruzko informazioa... 26 | *Cláusula 39. Información subrogación. 26*
Laugarren atala: Konfidentzialtasuna ..... 27 | *Sección cuarta: Confidencialidad 27*
40. klausula. Konfidentzialtasun-betebeharra. ..... 27 | *Cláusula 40. Deber de confidencialidad. 27*
41. klausula. Datu pertsonalen babesa. ..... 28 | *Cláusula 41. Protección de datos. 28*
Bosgarren atala. Aseguruak ..... 29 | *Sección quinta. De los seguros 29*
42. klausula. Aseguruak. ..... 29 | *Cláusula 42. Seguros. 29*
43. artikulua. Kontratistaren erantzukizuna. ..... 29 | *Cláusula 43. Responsabilidad del contratista. 29*

II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa. .. 29 | *CAPÍTULO II. De la cesión y subcontratación. 29*
44. klausula. Kontratua lagatzea. ..... 29 | *Cláusula 44. Cesión del contrato. 29*
45. klausula. Azpikontratazioa. ..... 29 | *Cláusula 45. Subcontratación. 29*

III. KAPITULUA Kontratua egikaritzea ..... 31 | *CAPÍTULO III. Ejecución del contrato 31*
Lehenengo atala. Arriskua eta mentura. ..... 31 | *Sección primera. Del riesgo y ventura. 31*
46. klausula. Arriskua eta mentura. ..... 31 | *Cláusula 46. Riesgo y ventura. 31*
47. klausula. Proiektuaren interpretazioa. ..... 32 | *Cláusula 47. Interpretación del proyecto. 31*
Bigarren atala. Zuinketa egiaztatzea ..... 32 | *Sección segunda. De la comprobación 32*
48. klausula. Zuinketa egiaztatzea. ..... 32 | *Cláusula 48. Comprobación del replanteo. 32*
49. klausula. Segurtasun eta osasun-plana. ..... 33 | *Cláusula 49. Plan de seguridad y salud. 33*
50. klausula. Lan-programa. ..... 34 | *Cláusula 50. Programa de trabajo. 34*
Hirugarren atala. Egikaritze okerra. ..... 34 | *Sección tercera. De la ejecución defectuosa. 34*
51. klausula. Egikaritze okerra. ..... 34 | *Cláusula 51. Ejecución defectuosa. 34*
Laugarren atala: Obrak aldatzea eta etetea ..... 34 | *Sección cuarta. De la modificación. 34*
52. klausula. Obrak aldatzea. ..... 34 | *Cláusula 52. Modificación de las obras. 34*
53. klausula. Obrak etetea. ..... 35 | *Cláusula 53. Suspensión de las obras. 35*
Bosgarren atala: Zehapenak ..... 36 | *Sección quinta: Penalidades 36*
54. klausula. Zehapenak. ..... 36 | *Cláusula 54. Penalidades. 36*

IV. KAPITULUA. Kontratua amaitzea. ..... 37 | *CAPÍTULO IV. Extinción del contrato. 37*
Lehenengo atala. Kontratua amaitzea. ..... 37 | *Sección primera. De la resolución del contrato 37*
55. klausula. Kontratua amaitzea. ..... 37 | *Cláusula 55. Resolución del contrato. 37*
Bigarren atala. Obra amaitzea. ..... 37 | *Sección segunda. De la terminación de la obra. 37*
56. klausula. Obra amaiera jakinarazpena. ..... 37 | *Cláusula 56. Aviso de terminación. 37*
57. klausula. Obraren harrera. ..... 38 | *Cláusula 57. Recepción de la obra. 38*
58. klausula. Neurketa orokorra. ..... 38 | *Cláusula 58. Medición general. 38*
Hirugarren atala. Bermealdia. ..... 39 | *Sección tercera. Del plazo de garantía. 39*
59. klausula. Bermealdia. ..... 39 | *Cláusula 59. Plazo de garantía. 39*
60. klausula. Ezkutuko akatsak. ..... 39 | *Cláusula 60. Responsabilidad por vicios ocultos.... 39*

Laugarren atala. Administrazioaren eskumenak ... 40 | *Sección cuarta. Prerrogativas. 40*

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

61. klausula. Administrazioaren eskumenak. 40
Bosgarren atala. Helegiteak. 41
62. klausula. Helegiteak..... 41

ERANSKINAK 42

Cláusula 61. Prerrogativas y facultades. 40
Sección quinta. Recursos. 41
Cláusula 62. Recursos..... 41

ANEXOS..... 42

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

Administrazio baldintza partikularren plegua, San Inazio auzoko Otarreaga kaleko bidegurutzea urbanizatzeko obra-kontratua arautuko duena, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatu beharrekoa.

Pliego de cláusulas administrativas particulares que ha de regir en el contrato de las obras de urbanización del cruce de la calle Otarreaga en el barrio de San Ignacio, a adjudicar por procedimiento abierto simplificado.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

I. KAPITULUA. Araubide juridikoa

CAPÍTULO I. Régimen jurídico

1. klausula. Araubide juridikoa.

Kontratu hau administratiboa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoarekin bat. Lege horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikora eraman ziren 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauak. Alderdiek agiri honetan eta haren baldintza tekniko zehatzen orrian jasotakoari men egin behar diote espresuki. Bi agiriak kontratuzkoak dira.

Agirietan aurreikusten ez denerako, arau hauek gobernatuko dute kontratua: SPKL; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena (817/2009 ED); urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (HAKLAO), aurreko guztiari kontra egiten ez dion guztian. Arau horiek SPKLren xedapen indargabetzaileak eragiten ez dien eremu guztietan aplikatuko dira.

Edonola ere, lehen aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLri kontra egiten ez dioten eremu guztietan aplikatuko dira.

Kontratuaren klausulak, kontratuaren gainontzeko agiriak eta hitzartutakoaren egikaritzean aplika daitezkeen jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du adjudikazioduna horiek betetzeko betebeharretik salbuetsiko.

Horrez gain, zuzenbide administratiboko gainontzeko arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Cláusula 1. Régimen jurídico.

El presente contrato tiene carácter administrativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante LCSP). Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en este pliego y en su correspondiente de prescripciones técnicas particulares. Ambos pliegos tienen carácter contractual.

Para lo no previsto en los pliegos, el contrato se regirá por la LCSP, por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (RD 817/2009); por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado mediante Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre (RGLCAP), en todo lo que no se oponga a la anterior. La aplicación de estas normas se llevará a cabo en relación con todo lo que no haya resultado afectado por la disposición derogatoria de la LCSP.

En todo caso, las normas legales y reglamentarias citadas anteriormente serán de aplicación en todo lo que no se oponga a la LCSP.

El desconocimiento de las cláusulas del contrato en cualquiera de sus términos, de los otros documentos contractuales y de las instrucciones o de la normativa que resulten de aplicación en la ejecución de lo pactado, no exime al adjudicatario de la obligación de cumplirlas.

Supletoriamente, se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado.

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

II. KAPITULUA Organo kontratatzailea.

2. klausula. Kontratazio-organoa.

SPKLren 61.etik 64.era bitarteko artikuluetan eta bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituko zaio.

Kontratazio-mahaiak SPKLren 326. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

Agiriaren I. eranskineko 2. idatz-zatian zehazten da kontratu honetarako kontratazio-organoa zein izango den.

3. klausula. Kontratu-arduraduna.

SPKLren 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo du.

SPKLren 62.2 artikuluarekin bat etorrita, obra-kontratuetan, kontratuaren arduradunaren ahalmenak zuzendaritza teknikoak erabiliko ditu, SPKLren 237. artikulutik 246. artikulura xedatutakoaren arabera.

Kontratazio-organoak, zuzendaritza teknikoaren bitartez, egingo ditu, era berean, ikuskapena, egiaztapena eta zaintza, obra behar bezala egiteko.

Kontratistak beteko ditu eta betearaziko ditu zuzendaritza teknikoko langileen kontsiderazioak; langile horiek sarrera libre izango dute langune eta obrako materialen biltegietara, aurrez ikuskatzeko.

I. eranskineko 3. idatz-zatian zehazten da kontratazio-organoaren kontratu-arduradunak nola gauzatuko dituen kontratua indarrean egon bitartean gainbegiratzeko eta ikuskatzeko ahalmenak eta administrazioak emaitzak jasotzean haiek egiaztatzeko duen eskumena.

4. klausula. Kontratua egikaritzeaz eta hari jarraipena egiteaz arduratuko den unitatea.

SPKLren 62. artikulua betez, agiri honen **I. eranskineko 3. idatz-zatian** zehazten da kontratuaren jarraipenaz eta ohiko egikaritzeaz zer unitate arduratuko den.

CAPÍTULO II. Del órgano contratante.

Cláusula 2. Órgano de contratación.

Se estará a lo dispuesto en los artículos 61 a 64 y en la disposición adicional segunda de la LCSP.

La mesa de contratación se regirá por lo dispuesto en el artículo 326 LCSP

Para el presente contrato el órgano de contratación será el que figure en el **apartado 2 del anexo I** al pliego.

Cláusula 3. Responsable del contrato.

Actuará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 62.1 LCSP.

De conformidad con el artículo 62.2 LCSP, en los contratos de obras las facultades del responsable del contrato serán ejercidas por la dirección facultativa de acuerdo con los artículos 237 a 246 LCSP.

El órgano de contratación, a través de la dirección facultativa, también efectuará la inspección, comprobación y vigilancia para la correcta realización de la obra ejecutada.

El contratista guardará y hará guardar las consideraciones debidas al personal de la dirección facultativa, que tendrá libre acceso a todos los puntos de trabajo y almacenes de materiales destinados a las obras para su previo reconocimiento.

En el **apartado 3 del anexo I** se concreta el modo en que el responsable del contrato del órgano de contratación ejercerá las facultades de inspección y vigilancia durante la vigencia del contrato y las comprobaciones al tiempo de la recepción que se reserva la Administración.

Cláusula 4. Unidad encargada del seguimiento y ejecución del contrato.

De conformidad con el artículo 62 LCSP, la unidad encargada del seguimiento y ejecución ordinaria del contrato será la que se indica en el **apartado 3 del anexo I** al presente pliego.

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

III. KAPITULUA. Kontratua.

5. klausula. Kontratuaren xedea eta beharra.

Plegu honetan aipatzen den kontratuaren xedea **haren I. eranskineko 1. idatz-zatian** deskribatzen diren obrak egikaritzea da.

SPKLren 99.3 artikulua betez, kontratazio-organoak kontratuaren xedea loteetan ez banatzea erabaki dezake behar bezala justifikatu beharreko arrazoi onargarriak emanez gero. Kontratu honi dagokionez, agiri honen **I. eranskineko 1. idatz-zatian** loteetan banatu ez izana justifikatzen da.

6. klausula. Balio zenbatetsia.

SPKLren 101. artikuluan jasotakoa betez, agiri honen **I. eranskineko 4. idatz-zatian** adierazten da kontratu honen balio zenbatetsia.

7. klausula. Lizitazioaren oinarri-aurrekontua eta kontratuaren prezioa.

Agiri honen **I. eranskineko 5. idatz-zatian** adierazten da lizitazioaren oinarri-aurrekontua zenbatekoa den. Agiri honen **I. eranskineko 5. idatz-zatian** zehazten dira haren xehakapena eta aurreikusitako urterokoen banaketa.

8. klausula. Kreditua izatea.

Zerbitzuak agiri honen **I. eranskineko 5. idatz-zatian** adierazten diren kredituen barnean egikarituko dira.

9. klausula. Kontratuen iraupena eta prestazioa egikaritzeko epea.

I. eranskineko 8. idatz-zatian azaltzen dira agiri honetan aipatzen diren lanak egikaritzeko guztizko epea eta epe partzialak, eta azken horiek, hala badagokio, lan-programa onartzen denean zehaztuko dira.

Edonola ere, kontratuen iraupenari eta prestazioa egikaritzeko epeari dagokienez, SPKLren 29. artikuluan ezarritakoari erreparatu behar zaio.

Kontratua agiri honen **I. eranskineko 8. idatz-zatian** adierazten den tokian egikarituko da.

CAPÍTULO III. Del contrato.

Cláusula 5. Objeto y necesidad del contrato.

El objeto del contrato al que se refiere el presente pliego, es la ejecución de las obras descritas en el **apartado 1 de su anexo I.**

De conformidad con el artículo 99.3 LCSP el órgano de contratación podrá no dividir en lotes el objeto del contrato cuando existan motivos válidos que deberán justificarse debidamente. En el presente contrato la justificación de la no división en lotes, se indica en el **apartado 1 del anexo I** al presente pliego.

Cláusula 6. Valor estimado.

El valor estimado del presente contrato, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 101 LCSP, asciende a la cantidad expresada en el **apartado 4 del anexo I** al presente pliego.

Cláusula 7. Presupuesto base de licitación y precio del contrato.

El presupuesto base de licitación asciende a la cantidad expresada en el **apartado 5 del anexo I** al presente pliego. Su desglose y la distribución por anualidades previstas se establece en el **apartado 5 del anexo I** al presente pliego.

Cláusula 8. Existencia de crédito

La ejecución de los servicios está amparada por los créditos que se indican en el **apartado 5 del anexo I** al presente pliego.

Cláusula 9. Plazo de duración de los contratos y de ejecución de la prestación.

El plazo total y los parciales de ejecución de los trabajos a que se refiere este pliego serán los que figuran en el **apartado 8 del anexo I**, siendo los plazos parciales los que se fijen como tales en la aprobación del programa de trabajo, en su caso.

En todo caso, en relación con el plazo de duración de los contratos y de ejecución de la prestación, se deberá tener en cuenta lo dispuesto en el artículo 29 LCSP.

El contrato se ejecutará en el lugar que se indica en el **apartado 8 del anexo I** de este pliego.

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

10. klausula. Kontratuaren luzapena.

Edukirik gabe.

Cláusula 10. Prórroga del contrato.

Sin contenido.

11. klausula. Jakinarazpen telematikoak.

Administrazioaren jakinarazpen eta komunikazio guztiak Jakinarazpen Telematikoko Sistemaren bidez egingo dira.

Lizitatzaileek sinadura elektroniko aitortu edo gaitu eta aurreratuko sistemak eduki behar dituzte, aplikazio berean jakinarazpenak jasotzea ahalbidetzen dieten sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko gaituetan oinarritzen direnak.

Cláusula 11. Notificaciones telemáticas.

Todas las notificaciones y comunicaciones que realice la Administración se practicarán a través del Sistema de Notificaciones Telemáticas.

Los licitadores deberán contar con sistemas de firma electrónica reconocida o cualificada y avanzada basados en certificados electrónicos cualificados de firma electrónica que les permita recoger las notificaciones en la misma aplicación.

12. klausula. Egikaritzeko baldintza bereziak.

Agiri honen **I. eranskineko 24. idatz-zatian** adierazten dira kontratu hau egikaritzeko baldintza bereziak.

Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, agiri honen **I. eranskineko 30. idatz-zatian** zehapenak ezarriko dira edo baldintza hauek funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira SPKLren 211. artikuluaren f) letran aipatzen diren ondorioetarako.

Kontratua egikaritzean esku hartuko duten azpikontratistek ere kontratua egikaritzeko baldintza berezi horiek guztiak bete beharko dituzte.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoa beteko da.

Horrela, kontratazio publikoan genero-ikuspegia txertatu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak sartuko dira esleipen-irizpideen eta gauzatzeko baldintza berezien artean. Salbu eta objektiboki justifikatzen bada kontratuaren xedeak ez duela loturarik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, kontratazio publikoaren arloko oinarrizko araudiarekin bat etorriz, kontratazio-organoek honako hauek jasoko dituzte kontratazio-agirietan:

Cláusula 12. Condiciones especiales de ejecución.

Las condiciones especiales de ejecución para este contrato se indican en el **apartado 24 del anexo I** al presente pliego.

Para el caso de incumplimiento de estas condiciones especiales de ejecución deberán establecerse penalidades en el **apartado 30 del anexo I** al presente pliego o atribuirles a estas condiciones el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos señalados en la letra f) del artículo 211 LCSP.

Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen en la ejecución del mismo.

Igualdad de mujeres y hombres

Se estará a lo dispuesto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

Así se deberá incorporar la perspectiva de género en la contratación pública y se incluirán cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres entre los criterios de adjudicación y las condiciones especiales de ejecución, salvo que objetivamente se justifique que el objeto del contrato no guarda relación con la igualdad de mujeres y hombres. De conformidad con la normativa básica en materia de contratación pública, los órganos de contratación incorporarán en los pliegos de contratación:

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako esleipen-irizpideak, baremo osoaren % 5eko ponderazioa izango dutenak, gutxienez.
b) Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako gauzatze-baldintza berezi bat gutxienez, hizkera eta irudi mota guztietan erabilera ez-sexista egitetik harago.

a) Criterios de adjudicación para la igualdad de mujeres y hombres, cuya ponderación será al menos del 5 % del total del baremo.
b) Al menos una condición especial de ejecución relacionada con la igualdad de mujeres y hombres, más allá de la de realizar un uso no sexista en todo tipo de lenguaje e imágenes

Lan egonkortasuna.

Kontratua egikaritzen duten langile guztiekiko plantilla mugagabearen gutxieneko ehunekoa **I. eranskineko 24. idatz-zatian** adierazitakoa izango da.

Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzeko, baldintza berezi gisa onartuko du proiektua gauzatuko duten langileen kontratuari dagokion indarreko azken hitzarmen kolektiboak (enpresakoa, sektoriala edo lurraldekoa) ezarritako lan-baldintzak aplikatzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi ezin duenik hobekuntzarik sartu hitzarmen horretan xedatutakoaren gainean.

Estabilidad laboral

Se establece como condición de ejecución que el porcentaje mínimo de plantilla indefinida sobre el total del personal que ejecute el contrato será el indicado en el **apartado 24 del anexo I.**

En particular, se asumirá como condición especial de ejecución la obligación de la empresa adjudicataria de aplicar a la plantilla que ejecutará el contrato las condiciones de trabajo establecidas por el último convenio colectivo sectorial y territorial vigente en el que se encuadra y desarrolla la prestación contractual, sin perjuicio de mejoras sobre lo dispuesto en el mismo.

Hizkuntza baldintzak

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duten arauek erregulatua.

19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 13. artikuluan xedatzen dute kontratazio-organoek kontratazio publikoetan beharrezko klausulak sartu behar dituztela herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta bi hizkuntza ofizialen ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko. Horrez gainera, kontratuaren objektuak aplikagarria zaion hizkuntza-normalizazioko araudia bete beharko dute. Kontratazio-prozeduraren objektua baldin bada herritarrei zuzendutako prestazio bat edo hura gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean emango zaie arreta, eta, gainera, herritar hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira. Horretarako, kontratazio-organoek kontratua betearazteko baldintza berezi gisa ezarriko dute euskarazko arreta bermatzeko plan bat egitea, kontratuaren ezaugarriak direla-eta, beharrezkotzat jotzen bada.

Baldintza pleguotan ezartzen diren hizkuntza baldintzak kontratuaren obligazioa dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta

Condiciones lingüísticas

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla.

El Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, establece en su artículo 13 que los órganos de contratación deben incluir en las contrataciones públicas las cláusulas necesarias para garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y cumplir con la regulación de la oficialidad de las dos lenguas oficiales. Además, los objetos del contrato deberán cumplir la normativa de normalización lingüística que le sea de aplicación. Cuando el procedimiento de contratación tenga por objeto una prestación dirigida a la ciudadanía o se establezca en su ejecución una relación directa con la misma, se atenderá en la lengua oficial de su elección y se garantizarán los derechos lingüísticos de los ciudadanos destinatarios. A tal efecto, los órganos de contratación establecerán como condiciones especiales de ejecución del contrato la elaboración de un plan de garantía de la atención en euskera cuando las características del contrato lo hagan necesario.

Los requisitos lingüísticos que se establecen en los pliegos son una obligación del contrato a los efectos de la Ley de Contratos del Sector Público, por lo que tendrá las mismas consecuencias que el

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu.

19/2024 Dekretuaren, otsailaren 22koaren, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoaren, 13. artikuluari jarraikiz, enpresa esleipendunak Tolosako Udalaren hizkuntza-araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan. Horrenbestez, euskaraz ere egin ahal izango dira harreman horiek.

incumplimiento del resto de las condiciones del contrato.

De acuerdo con el artículo 13 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, la adjudicataria actuará de acuerdo con la normativa lingüística del Ayuntamiento de Tolosa en todas las actividades objeto del contrato, tanto orales como escritas. Por lo tanto, estas relaciones podrán realizarse también en euskera.

13. klausula. Prezioak berrikustea.

Prezioak berrikusterakoan, agiri honen **I. eranskineko 6. idatz-zatian** zehaztutakoari men egingo zaio, SPKLren 103. artikulua betez.

Behin-behineko prezioak dituzten kontratuetan ez dira prezioak berrikusiko, SPKLren 102.7 artikuluan azken zatian ezarritakoa betez.

Cláusula 13. Revisión de precios.

En la revisión de precios se estará a lo especificado en el **apartado 6 del anexo I** del presente pliego, todo ello de conformidad con el artículo 103 de la LCSP.

En los contratos celebrados con precios provisionales no cabrá la revisión de precios de conformidad con lo dispuesto en el artículo 102.7 in fine LCSP.

IV. KAPITULUA. Lizitatzailea.

CAPÍTULO IV. Del licitador.

14. klausula. Kontratatzeko egokitasuna.

Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasunari dagokionez, SPKLren 65. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta agiri honen **I. eranskineko 11. Idatz-zatian** ezarritakoarekin bat etorriz.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izan ahal izateko, prestazioak haien helburu, xede edo jarduera-eremuan jasota egon behar dira, haien estatutuen edo sortze-arauen arabera.

Kontratistek, hala badagokio, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa emateko gaikuntza enpresariala edo profesionala eduki beharko dute, agiri honen **I. eranskineko 13. idatz-zatian** ezarritakoarekin bat etorriz.

Cláusula 14. Aptitud para contratar.

En la aptitud para contratar con la Administración se estará a lo dispuesto en el artículo 65 y siguientes LCSP, y de conformidad con lo establecido en el **apartado 11 del anexo I** al presente pliego.

Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.

Los contratistas deberán contar asimismo con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación que constituya el objeto del contrato, de conformidad con lo establecido en el **apartado 13 del anexo I** al pliego.

15. klausula. Sailkapena eta kaudimena.

SPKLren 74. artikulua betez, sektore publikoko kontratuak egiteko, enpresariek egiaztatu behar dute gutxieneko baldintzak betetzen dituztela kontratazio-organoak zehaztutako kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional edo teknikoari dagokionez.

Cláusula 15. Clasificación y solvencia.

De conformidad con el artículo 74 LCSP, para celebrar contratos con el sector público los empresarios deberán acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica que se determinen

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

Baldintza horren ordez, sailkapena har daiteke kontuan.

por el órgano de contratación. Este requisito podrá ser sustituido por el de la clasificación.

Baldin eta obra-kontratuaren balio zenbatetsia 500.000 eurokoa edo handiagoa bada, ezinbesteko baldintza izango da enpresaria behar bezala sailkatuta egotea botere adjudikatzaileen obra-kontratista moduan. Kontratu horietarako, enpresariaren sailkapenak egiaztatuko ditu kontratatzeko dituen kaudimen-baldintzak, alegia, kontratuaren arabera egokitzen zaion taldean edo azpitaldean eta kontratuan exijitutako kategoriarekin edo kategoria handiagorekin duen sailkapenak.

Para los contratos de obras cuyo valor estimado sea igual o superior a 500.000 euros será requisito indispensable que el empresario se encuentre debidamente clasificado como contratista de obras de los poderes adjudicadores. Para dichos contratos, la clasificación del empresario en el grupo o subgrupo que en función del objeto del contrato corresponda, con categoría igual o superior a la exigida para el contrato, acreditará sus condiciones de solvencia para contratar.

Baldin eta obra-kontratuaren balio zenbatetsia 500.000 eurokoa baino txikiagoa bada, enpresariaren sailkapenak egiaztatuko ditu kontratatzeko dituen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa, alegia, kontratuaren arabera egokitzen zaion taldean edo azpitaldean duen sailkapenak, zeina kontratuaren pleguan jasoko baita. Kasu horietan, enpresariak bere kaudimena egiaztatu ahal izango du bi bide hauetako baten bidez: bere burua kontratuari dagokion sailkapen taldean edo azpitaldean sailkatuta edo, bestela, exijitutako kaudimen-baldintzak betetzen dituela egiaztatuta.

Para los contratos de obras cuyo valor estimado sea inferior a 500.000 euros la clasificación del empresario en el grupo o subgrupo que en función del objeto del contrato corresponda, y que será recogido en los pliegos del contrato, acreditará su solvencia económica y financiera y solvencia técnica para contratar. En tales casos, el empresario podrá acreditar su solvencia indistintamente mediante su clasificación como contratista de obras en el grupo o subgrupo de clasificación correspondiente al contrato o bien acreditando el cumplimiento de los requisitos específicos de solvencia exigidos.

I. eranskineko 11. idatz-zatian ezartzen dira kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa, edo sailkapena.

La clasificación exigida, o en su caso la solvencia económica y financiera y técnica, se establece **en el apartado 11 del anexo I al pliego**.

16. klausula. Kaudimena kanpo-baliabideen bidez egiaztatzea.

Cláusula 16. Integración de la solvencia con medios externos.

Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabil ditzake kontratu zehatz bat gauzatzeko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, haiekin duen lotura juridikoa edozein motakoa dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratuaren egikaritze osoan zehar kaudimen eta baliabide horiek benetan eskura izango dituela eta erakunde hark kontratatzeko debekurik ez duela.

Para acreditar la solvencia necesaria para celebrar un contrato determinado, el empresario podrá basarse en la solvencia y medios de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tenga con ellas, siempre que demuestre que durante toda la duración de la ejecución del contrato dispondrá efectivamente de esa solvencia y medios, y la entidad a la que recurra no esté incursa en una prohibición de contratar.

Baldintza berdinetan, lehiaketan parte hartzeko SPKLren 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako enpresa-elkarteak eratzen dituzten enpresariek enpresa-elkarte horiez kanpoko gaitasunez baliatzeko aukera dute.

En las mismas condiciones, los empresarios que concurran agrupados en las uniones temporales a que se refiere el artículo 69 LCSP, podrán recurrir a las capacidades ajenas a la unión temporal.

Horrenbestez, lizitatzaileek **I. eranskineko 11. idatz-zatian** aipatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionaleko baldintza espezifikoak egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimen eta baliabideak har ditzake oinarritzat.

Por tanto, los licitadores podrán acreditar los requisitos específicos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional recogidos en el **apartado 11 del anexo I** basándose en la solvencia y medios de otras entidades.

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

17. klausula. Kaudimen-baldintzak zehaztea.

Agiri honen I. eranskineko 12. idatz-zatian adierazten da kontratua egikaritzeko ardura duten langileen izenak eta prestakuntza jasota uzteko eta kontratuaren egikaritzeari giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa, hala badagokio.

Cláusula 17. Concreción de las condiciones de solvencia.

La exigencia, en su caso, de los nombres y la cualificación del personal responsable de ejecutar el contrato, así como del compromiso de adscripción a la ejecución del contrato de medios personales y/o materiales, se establece en el **apartado 12 del anexo I** al presente pliego.

V. KAPITULUA. Adjudikaziorako prozedura.

CAPÍTULO V. Del procedimiento de adjudicación.

Lehenengo atala. Adjudikaziorako prozedura eta irizpideak.

Sección primera. Del procedimiento y criterios de adjudicación.

18. klausula. Prozedura.

SPKLren 131. eta 159. artikuluetan jasotakoa betez, kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko da, agiri honen **I. eranskineko 10. idatz-zatian** jasotakoa eta lege-testu horretan ezarritako baldintzak eta eskakizunak betez, SPKLren 145. eta 146. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Cláusula 18. Procedimiento.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 131 y 159 LCSP, el contrato se adjudicará por procedimiento abierto simplificado, según lo dispuesto en el **apartado 10 del anexo I** al presente pliego y conforme a los términos y requisitos establecidos en dicho texto legal, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 145 y 146 LCSP.

19. klausula. Publizitatea.

Herri Administrazioen kontratuen adjudikaziorako lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Agiri honen **I. eranskineko 35. idatz-zatian** agertzen den Tolosako Udalaren kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa emango da, eta, hala badagokio, administrazio-baldintza berezien agiria eta dokumentazio osagarria jasota utziko dira.

Agiri honen **I. eranskineko 4. idatz-zatian** jasotakoaren arabera, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuen lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLren 135. artikulua betez.

Lizitazio-prozeduran parte hartu nahi dutenek agiriei eta gainontzeko dokumentu osagarriei buruzko informazio gehiago eska dezakete agiri honen **I. eranskineko 34. idatz-zatian** adierazitako aurrerapenarekin.

Cláusula 19. Publicidad.

El anuncio de licitación para la adjudicación de contratos de las Administraciones Públicas se publicará en el perfil de contratante.

En el perfil de contratante del Ayuntamiento de Tolosa que figura en el **apartado 35 del anexo I** al presente pliego, se ofrecerá información relativa a la convocatoria de la licitación del contrato, incluyendo los pliegos de cláusulas administrativas particulares y documentación complementaria, en su caso.

Cuando los contratos, según lo dispuesto en el **apartado 4 del anexo I** al presente pliego, estén sujetos a regulación armonizada, la licitación se publicará además en el Diario Oficial de la Unión Europea, de conformidad con el artículo 135 LCSP.

Los interesados en el procedimiento de licitación podrán solicitar información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria con la antelación fijada en el **apartado 34 del anexo I** de este pliego.

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

20. klausula. Adjudikaziorako irizpideak.

Agiri honen **I. eranskineko 10. eta 19. idatz-zatietan adierazten dira** adjudikaziorako zer irizpide hartuko diren oinarritzat.

Adjudikazioaren xede diren irizpideen artean, **I. eranskinaren 20. idatz-zatian** adierazten dira, SPKLren 149.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, anormaltzat hartzen diren eskaintzak antzemateko parametro objektiboak.

Cláusula 20. Criterios de adjudicación.

Los criterios que han de servir de base para la adjudicación, son los señalados en los **apartados 10 y 19 del anexo I** al presente pliego.

De entre los criterios objetivos de adjudicación, en el **apartado 20 del anexo I** se señalan los parámetros objetivos que deberán permitir identificar los casos en que una oferta se considere anormal de conformidad con lo dispuesto en el artículo 149.2 LCSP.

Bigarren atala. Bermeak

Sección segunda. De las garantías

21. klausula. Behin-behineko bermea.

Edukirik gabe.

Cláusula 21. Garantía provisional.

Sin contenido.

22. klausula. Behin betiko bermea.

145. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eman beharko dio kontratazio-organoari, agiri honen **I. eranskineko 15. idatz-zatian** aurreikusitakoaren arabera.

Edonola ere, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuak estaliko ditu.

Behin betiko bermea SPKLren I. liburuaren IV. tituluaren I. kapituluan araututakoaren arabera eratuko da, SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako edozein eratan, agiri honen **IV. eranskinean** ezartzen den eredura egokituz. Udaleko Diruzaintzan ordaindu beharko da.

Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, agiri honen **I. eranskineko 16. idatz-zatian** jasotakoaren arabera.

Cláusula 22. Garantía definitiva.

El licitador que presente la mejor oferta de conformidad con lo dispuesto en el artículo 145, deberá constituir a disposición del órgano de contratación una garantía definitiva, según lo previsto en el **apartado 15 del anexo I** al presente pliego.

En todo caso, la garantía definitiva responderá de los conceptos a que se refiere el artículo 110 LCSP.

La garantía definitiva se constituirá de conformidad con lo preceptuado en el Capítulo I del Título IV del Libro I de la LCSP y en cualquiera de las formas que se establecen en el artículo 108.1 LCSP, ajustándose, de acuerdo con la forma escogida, a los modelos que se establece en el **anexo IV** al presente pliego, debiendo consignarse en la Tesorería municipal.

La garantía complementaria se establecerá de conformidad con lo previsto en el artículo 107.2 LCSP, y se estará, en su caso, a lo dispuesto en el **apartado 16 del anexo I** al presente pliego.

23. klausula. Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea.

Behin kontratuaren kitapena onartuta, behin betiko bermearen bidez gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago eta agiri honen **I. eranskineko 32. idatz-zatian** zehazten den bermealdia amaitu bada, bermea itzultzea erabakiko da.

Cláusula 23. Devolución y cancelación de la garantía definitiva.

Aprobada la liquidación del contrato, si no resultasen responsabilidades que hayan de ejercitarse sobre la garantía definitiva y transcurrido el plazo de garantía determinado en el **apartado 32 del anexo I** al presente pliego, se dictará acuerdo de devolución de aquélla.

ESKU266f4bbe-fcc6-4012-90af-3f5badc1e9ff

Baldin eta prestazioa zatika jasotzea ezarri bada, agiri honen **I. eranskineko 8. idatz-zatian** bermearen partzialki kitatzeari buruz jasotakoari men egingo zaio.

En el supuesto de que se hubiesen establecido recepciones parciales, se estará a lo indicado en el **apartado 8 del anexo I** al presente pliego respecto de la cancelación parcial de la garantía.

II. TITULUA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA.

TÍTULO II. LICITACIÓN DEL CONTRATO.

I. KAPITULUA. Proposamenak.

CAPÍTULO I. De las proposiciones.

24. klausula. Proposamenak aurkeztea.

Proposamenak kontratazio-organoari zuzenduko zaizkio, eta lizitazio-iragarkian adierazten den tokian eta epean aurkez daitezke soilik.

